

Ogasun eta Finantza Departamentua
Departamento de Hacienda y Finanzas

Zerga eta Finantza Politikako Zuzendaritza Nagusia
Dirección General de Política Fiscal y Financiera



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Zenbait zerga aldaketa onartzen dituen Foru Arau Proiektuaren txosten ekonomikoa eta genero inpaktua



Aurkibidea

1. Sarrera
2. Zergabilketan eragina duten arau aldaketen identifikazioa
3. Foru Arau Proiektuaren generoari buruzko txostena
4. Foru Arau Proiektuak dakartzan aldaketen eragina zergabilketan



1. SARRERA

Txosten honetan aztertzen da zenbateko eragina izango duen Gipuzkoako Foru Ogasunaren zergabilketan zerga arloko zenbait neurri onartzen dituen Foru Arau Proiektuak. Neurri horiek Gipuzkoako Foru Aldundiaren zerga propioei dagozkie beti, txosten honen ondorioetarako. Kalkulatu nahi izan da zenbateraino aldatuko den zergabilketa gaur egun indarrean dagoen araudiaren ordez arau proiektu berrian jasotzen diren aldaketa nagusiak aplikatzen badira. Hortaz, txosten honen xedea ez da proiektuan sartzen diren neurriak termino absolututan ebaluatzea, haiek aztertzea eta gaur indarrean daudenekin alderatzea baizik.

Indarrean dagoen araudia eta proposatzen dena alderatuz identifikatu ahal izan dugu zein diferentzia normatibok eragiten duten modu berezian zergabilketan. Era berean, zerrenda horretatik zergabilketan *a priori* gehien eragiten dutenak aukeratu dira; aintzat hartuak izateko behar besteko oinarri ekonomiko fidagarriak eskaintzen ez dutenak, ordea, hortik kanpo utzi ditugu.

Aldaketen eragina kuantifikatzeko, banan-banan aztertu dira neurriak; gertatzen den aldea kuota likidoan konparatu dugu beti, hau da, indarrean dagoen araudiaren arabera ateratzen den kuota dagokion aldaketa aplikatuta ateratzen denarekin konparatu da.

Txosten honek beste hiru atal ditu sarrera honekin batera. Bigarrenean, proiektuan jaso eta zergabilketan eragina duten neurri nagusiak zerrendatzen dira, betiere kalkulu fidagarriak egiteko datuak erabilita. Horretarako, indarrean dagoen idazkera eta proposatutakoa transkribatu ditugu. Hirugarren atalean, neurri fiskal horien generoari buruzko txostena aurkezten da. Eta laugarren atalean, neurri bakoitzak zergabilketan izango duen eragina kuantifikatu da.



2. ZERGABILKETAN ERAGITEN DUTEN ALDAKETEN IDENTIFIKAZIOA

<i>Foru Arau Proiektuaren eta indarrean dagoen araudiaren arteko aldeak</i>	
<i>1. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga</i>	
<i>10/2006 Foru Araua</i>	<i>FORU ARAU PROIEKTUA</i>
	<p>80 ter artikulua. Pentsiodunen eta langabeziagatiko prestazioen hartzaileen kenkari konpentsagarriak.</p> <p>1. Ezintasun iraunkor oso, erretiro, alarguntasun edo zurtasunagatik edota langabeziagatiko prestazioak direla eta Gizarte Segurantzaren eta Klase Pasiboen erregimen publikoetatik pentsioak eta hartzeko pasiboak jaso dituzten zergadunek 100eko leko kenkari bat aplikatuko dute pertzepzio horiengatik zenbatutako laneko etekin osoaren gainean, baldin eta oinarri ezargarria 20.000 eurokoa edo txikiagoa bada. Autolikidazio bakoitzeko aplikatu behar da kenkari hau.</p> <p>2. Artikulu honen ondorioetarako, oinarri ezargarritzat hartuko da foru arau honen 67. eta 68. artikuluetan aipatzen diren oinarri ezargarri orokorra eta aurrezpenaren oinarri ezargarria batzetik ateratzen den zenbatekoa. Oinarri ezargarri orokorrak saldo negatiboa ematen duenean, zero konputatuko da aipatutako baturaren ondorioetarako.»</p>
<p>2011ko zergaldirako ondorioekin bakarrik, kenkari berri bat sartzten da pentsiodunentzat eta langabezi prestazioen jasotzaileentzat: kontzeptu horretan jasotakoaren %1.</p>	



Foru Arau Proiektuaren eta indarrean dagoen araudiaren arteko aldeak

2. Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga

<i>18/1987 Foru Araua</i>	<i>FORU ARAU PROIEKTUA</i>
<p>11. artikulua.</p> <p>1. Zerga kuota jarraiko oinarriak oinarri likidagarrien gain egotziz aterako da' jarraiko artikuluetan xedatutakoaren kalterik gabe:</p> <p>a) % 6 ondasun higiezinaren eskualdaketa bada, eta bai eta ere beren gain eroritzen diren eskubide errealen uzte eta osaketak, bermeen eskubide errealak salbu.</p> <p>b) % 4a ondasun higikor eta aberezkoren transmisioa baldin bada, eta bai eta bere gaineko eskubide errealen uzte eta osaketak, bermeen eskubide errealak salbu.</p> <p>% 4ko karga tasa aplikatuko da abenduaren 15eko 42/1998 Legeak, erabilera turistikoko ondasun higiezinak txandaka aprobetxatzeko eskubideei buruzkoak, jasotzen dituen eskubideak Balio Erantsiaren gaineko Zergari lotu gabe partikularren artean eskualdatzen direnean, haien izaera edozein izanik ere¹⁷.</p> <p>c) % 2a loturiko edozein egintza eta atal honetako hizkietan eta 12. eta 13. artikuluetan eta jarraikoetan sartu gabea bada.</p> <p>d) 100eko 1, bermeen eskubide errealak, pentsioak, fidantzak edo maileguak, obligazio bidezkoak barne, eratuz gero eta edozein izaeratako kredituen laga izanez gero.</p> <p>e) Aurreko a) letran xedatutakoaren salbuespen gisa, etxebizitzaren eskualdaketa orokorrak, ondorengo letran aipatutakoak izan ezik, %4 tasaren arabera zergapetuko dira, bi unitate bitarteko garaje plazak, eta haiekin batera eskualdatzen diren eranskinak barne hartuta. Ondorio horietarako,</p>	<p>11. artikulua.</p> <p>1. Zerga kuota kalkulatzeko, eta hurrengo artikuluan ezarritakoa ere aintzat harturik, tasa hauek aplikatuko zaizkio oinarri ezargarriari:</p> <p>a) %6koa ondasun higiezinak eskualdatzen diren kasuan eta horiei dagozkien eskubide errealak eratzen eta lagatzen direnean, bermeko eskubide errealen kasuan izan ezik.</p> <p>b) Aurreko letran xedatua aintzat harturik ere, etxebizitzaren eskualdaketa orokorrak, ondorengo letran aipatutakoak izan ezik, eta elkarrekin eskualdatzen diren eta eraikin berean dauden gehienez ere bi unitateko garaje plazak eta eranskinak barne, %4ko tasaren arabera tributatu du. Ondorio horietarako, negozioetarako lokalak ez dira etxebizitzaren eranskintzat hartuko, etxebizitzarekin batera eskualdatu arren.</p> <p>Era berean, %4ko tasa aplikatuko da aurreko paragrafoak aipatzen dituen ondasunen gaineko eskubide errealak eratzen eta lagatzen direnean, bermeko eskubide errealen kasuan izan ezik.</p> <p>c) Aurreko bi letretan xedatua aintzat harturik ere, etxebizitzaren eskualdaketa, elkarrekin eskualdatzen diren eta eraikin berean dauden gehienez ere bi unitateko garaje plazak eta eranskinak barne, %2,5eko tasaren arabera tributatu du eskuratzaila familia ugariaren titularrak denean, edota kasu hauetan:</p> <p>- Etxebizitzak eskualdatzen direnean, horien azalera eraikia 120 metro koadrotik gorakoa ez denean edo 96 metro koadro erabilgarri</p>



negozioetarako lokalak ez dira etxebizitzaren eranskintzat hartuko, etxebizitzarekin batera eskualdatu arren.

Etxebizitza izateko egokitzen diren lokalen kasuan zergapekoa pertsona fisikoa denean eta lokala jarduera ekonomiko bati atxikita ez dagoenean, benetan ordaindutako zergaren eta eskuratutako higiezinari %4ko tasa aplikatzearen arteko diferentzia itzuliko du Zerga Administrazioak, zergapekoak aurrez eskaturik. Horretarako, dena den, beharrezkoa izango da letra honek zerga tasa hori aplikatzeko exijitzen dituen baldintzak betetzea eta, gainera, eskuraketa egin eta 18 hilabeteko epean zergapekoak frogatzea etxebizitza gisa erabiliko duen lokalak lehen erabilerarako edo lehen okupaziorako lizentzia jaso duela. Itzulketa horrek ez du berandutza interesik sortuko.

f) 1.a Ondoko eskualdaketak %2,5 aplikatuta zergapetuko dira:

- 120 metro karratutik gorako azalera eraikia edo 96 metro karratutik gorako erabilgarria ez duten etxebizitzak, eta orobat, haien garajeak (bi unitate gehienez) eta haiekin batera eskualdatzen diren eranskinak. Ondorio horietarako, negozioetarako lokalak ez dira etxebizitzaren eranskintzat hartuko, etxebizitzarekin batera eskualdatu arren.

- Familia bakarreko etxebizitzak, haien azalera eraikia 120 metro karratutik gorakoa ez denean edo 96 metro erabilgarri baino gehiago ez dituztenean, eta lursailaren azalera, eraikinak hartzen duena barne, 300 metro karratukoa baino handiagoa ez denean. 2.a Ondokoak ere %2,5eko tasa aplikatuta zergapetuko dira, eskuratzailerak familia ugariaren titularra izanez gero:

- Etxebizitzak eta haien garajeak (bi gehienez), eta haiekin batera eskualdatzen diren eranskinak. Ondorio horietarako, negozioetarako lokalak ez dira etxebizitzaren eranskintzat hartuko, etxebizitzarekin batera

baino gehiago ez dituztenean.

- Familia bakarreko etxebizitzak eskualdatzen direnean, horien azalera eraikia 120 metro koadrotik gorakoa ez denean edo 96 metro koadro erabilgarri baino gehiago ez dituztenean, eta lursailaren azalera, eraikinak hartzen duena barne, 300 metro koadro baino gehiagokoa ez denean. Familia bakarreko etxebizitzatzat hartuko da sarrera independentea duena, bai bakartua, binakakoa, atxikia edo ilaran antolatua izan. 100eko 2,5eko tasaren aplikazioaren ondorioetarako, azalera eraikitza hartuko da fatxadetako perimetro lerroen barruan (kanpoko zein barrukoetan) eta mehelinetakoa ardatzen artean dagoena.

Estalita dauden hegalkinak, balkoiak edo terrazak azalera eraikiaren parte izango dira alboetatik hormek mugatuta daudenean; bestela, horien azaleraren %50 baino ez da konputatuko, modu berean neurtuta.

Ondorio horietarako, negozioetarako lokalak ez dira etxebizitzaren eranskintzat hartuko, etxebizitzarekin batera eskualdatu arren. 100eko 2,5eko tasa aplikatzeko, ondoko baldintzak bete beharko dira:

a') Eskuratzailerak tasa hori aurrez aplikatu ez izana etxebizitza hori edo beste bat erosteko unean, eskuratutako titularitate portzentajea dena dela.

b') Eskuratzaileraren ohiko etxebizitza gisa erabiltzea etxebizitza, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 10/2006 Foru Arauak, abenduaren 29koak, eta hau garatzeko xedapenek aurreikusten dituzten baldintzetan.

Artikulu honetan aurreikusitakoaren ondorioetarako, zergapekoa pertsona fisikoa delarik lokal bat egokitzen bada etxebizitza izateko, lokala jarduera ekonomiko bati atxikita ez dagoela, Zerga Administrazioak, zergapekoak aurrez eskaturik, itzuli egingo



<p>eskualdatu arren.</p> <p>- Familia bakarreko etxebizitzak.</p> <p>Letra honetan jasotako ondorioetarako, familia bakarreko etxebizitzatzat hartuko da sarrera independentea duena, bakartua izan, binakakoa, atxikia edo ilaran antolatua.</p> <p>f) letra honetan aipatzen den %2,5eko tasa aplikatzeko ondoko beharkizunak bete beharko dira:</p> <ol style="list-style-type: none">1. Eskuratzailerak ez izatea udalerrin berean beste etxebizitza baten jabea %25etik gorako portzentajea.2. Eskuratzailerak ez badu eskualdatu udalerrin berean kokatuta dagoen aurreko ohiko etxebizitza, 100eko 4ko tasa aplikatuko da. Hala ere, artikulua honetan exijitzen diren baldintzak betetzen badira, eta horrez gainera, eskurapena egin eta 18 hilabeteko epean zergapekoak frogatzen badu etxebizitza saldu duela, zerga Administrazioak atzera bueltatuko dio, zergapekoak eskaturik, benetan ordaindutako zergaren eta erositako higiezinari tasa murriztuta aplikatzearen arteko diferentzia. Itzulketa horrek ez du berandutza interesik sortuko. <p>2. Eskuratzaileraren ohiko bizilekua izateko erabiltzea etxebizitza, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 29ko 10/2006 Foru Arauaren 90.8 artikuluan eta hura garatzen duten arauetan ezarritakoarekin bat etorritik.</p> <p>2. zenbakian jasotako beharkizuna betetzen dela justifikatzen duen dokumentazioa hamabi hilabeteko epean aurkeztu beharko da gehienez, etxebizitza eskuratu denetik zenbatzen hasita. Baldintza hori betetzen dela egiaztatzeko, zuzenbidean onartutako frogabideak erabili ahal izango dira.</p> <p>3. Eskuraketaren agirian adieraztea letra honetan ezarritako baldintzak betetzen direla</p>	<p>du benetan ordaindutako zergaren eta eskuratutako higiezinari b) eta c) letretan adierazitakoen artean dagokion tasa aplikatuzetik ateratzen den zenbatekoaren arteko aldea. Horretarako, dena den, zerga tasa hori aplikatzeko beharrezko baldintzak betetzeaz gain, zergapekoak 18 hilabeteko epea izango du, eskuraketatik kontatzen hasita, etxebizitza gisa erabiliko duen lokalaren lehen erabilerarako edo lehen okupaziorako lizentzia jaso duela frogatzeko. Itzulketa horrek ez du berandutza interesik sortuko.</p> <p>d) %4koa ondasun higigarriak eta azientak direnean eta horiei dagozkien eskubide errealak eratzen eta lagatzen direnean, bermeko eskubide errealen salbuespenarekin. Era berean, %4ko karga tasa aplikatuko da erabilera turistikoko ondasun higiezinaren aprobetxamendu eskubideei buruzko 42/1998 Legeak, abenduaren 15ekoak, jasotzen dituen eskubideen kasuan partikularren artean egiten diren eskualdaketetan, Balio Erantsiaren gaineko Zergari lotu gabeetan, eskubide horien izaera dena dela.</p> <p>e) %2ko tasa aplikatuko da apartatu honetako beste letretan edo 12. artikuluan jaso gabeko egintzetan.</p> <p>f) %1eko tasa aplikatuko da berme eskubide errealak, fidantzak edo maileguak eratzen direnean, baita obligazio bidez ordezkatuetan ere, kreditu lagapenean bezalaxe, hauen izaera dena dela.</p> <p>2. Egintza edo kontratu batek berak ondasun higigarriak eta higiezinak jasotzen dituen horietako bakoitzari dagokion balio zatia zehazteke, higiezinari dagokien karga tasa aplikatuko da.</p> <p>3. Bere izaera, xedea, erabilera edo aplikazioa dela eta zergari lotutako ondasunen kalifikazio juridikora begira, honi dagokionez Kode Zibilak edo, bestela, zuzenbide administratiboak xedatzen duenera joko da.</p>
---	--



edo beteko direla.

f) letra honetan xedatutakoa aplikatzeko, azalera eraikitza hartuko da fatxadetako lerro perimetralen barruan (kanpoko zein barrukoetan) eta mehelinetako ardatzen artean dagoena.

Estalita dauden hegalak, balkoiak edo terrazak azalera eraikiaren parte izango dira alboetatik hormek mugatuta daudenean; bestela, haien azaleraren %50 baino ez da konputatuko, modu berean neurtuta.

f) letra honetan aipatzen den azalera eraikiaren barruan inolaz ere ez da konputatu behar elementu komunek okupatzen duten azaleraren zati proportzionalari dagokiona.

Aurreko e) letraren azken paragrafoan jasotakoaren salbuespen gisa, etxebizitza izateko egokitzen diren lokalen kasuan zergapekoa pertsona fisikoa denean, benetan ordaindutako zergaren eta eskualdatutako higiezinari %2,5eko tasa aplikatzearen arteko diferentzia itzuliko du Zerga Administrazioak, zergapekoak aurrez eskaturik. Horretarako, dena den, beharrezkoa izango da letra honetako 1. eta 2. zenbakietan eta bere xedapen orokorretan zerga tasa hori aplikatzeko exijitzen diren baldintzak betetzea, eta zergapekoak eskualdaketa egin eta 18 hilabeteko epean frogatzea etxebizitza gisa erabiliko duen lokalerako lehen erabilera edo okupaziorako lizentzia eskuratu duela. Itzulketa horrek ez du berandutza interesik sortuko.

2. Ekitaldi edo kontratu berak bakoitzari dagokion balio zatiaren zehazterik gabeko ondasun higikor edo higiezinak sartzen dituenean higiezinaren karga oinarria egotziko da.

3. Bere izaera, helburu, erabilera edo egozte ezberdinen arazoiz Zergari lotutako ondasunen kalifikapen juridikorako, horretarako Kode Zibilak, edo honen faltan

Zergaren ondorioetarako, modu iraunkorrean ezarritako mota orotako instalazioak ondasun higiezinat hartuko dira, eraikuntza formagatik garraiatzeko modukoak izan arren, eta kokatuta dauden lurra instalazioen beren jabearena ez bada ere."



Administrazio Zuzenbideak, xedatutakoari helduko zaio.

Zergaren eraginetarako, ondasun higieztantz hartuko dira izaera iraunkorrez ezarritako edozein motatako instalazioak, nahiz eta eraikitze moduagatik garraiarriak izan eta kokaturik daudeneko lurra instalazioen jabearena ez izan.

Ohiko egoitza izango diren etxebizitzak erosteagatik %2,5eko tasa murriztua aplikatzean, ordezkoko baldintza jarriko da, alegia ohiko egoitza izango den etxebizitzaren udalerrri berean beste etxebizitza baten %25etik gorako portzentajearen titularra ez izatearen ordezk, beste etxebizitza bat erostean tasa hori aplikatu ez izatea.



<i>Foru Arau Proiektuaren eta indarrean dagoen araudiaren arteko aldeak</i>															
3. Jokoaren gaineko zerga															
<i>1/2005 Foru Araua</i>	<i>Foru Arau Proiektua</i>														
	8 bis. artikulua. Bingo jokoaren zerga tasa. Bingo jokoaren zerga tasa %18,4 izango da.														
%18,4ko tasa espezifiko bat ezartzen da, bingo jokotik datozen etekinen tributaziorako.															
<p>9. artikulua. 9. artikulua. Kasino jokoetarako zerga tasa.</p> <p>Hona hemen kasino jokoetarako urteko tarifa:</p> <table border="1"> <thead> <tr> <th>Oinarri ezargarriaren zatia</th> <th>Portzentajea</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td>0-2.000.000,00 euro</td> <td>20</td> </tr> <tr> <td>2.000.000,00 eurotik gora</td> <td>35</td> </tr> </tbody> </table> <p>Los tramos establecidos en la tarifa son independientes, de manera que cada parte de la base imponible tributará según el tipo establecido para cada respectivo tramo.</p>	Oinarri ezargarriaren zatia	Portzentajea	0-2.000.000,00 euro	20	2.000.000,00 eurotik gora	35	<p>9. artikulua. Kasino jokoaren zerga tasa.</p> <p>Kasino jokoetan urteko tarifa hau aplikatuko da:</p> <table border="1"> <thead> <tr> <th>Oinarri ezargarriaren zatia (tarte honetan dagoena)</th> <th>Tasa</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td>Portzentajea</td> <td></td> </tr> <tr> <td>0-2.000.000,00 euro</td> <td>20</td> </tr> <tr> <td>2.000.000,00 eurotik gora</td> <td>33</td> </tr> </tbody> </table> <p>Tarifan jasotako tarteak independenteak dira: hau da, oinarri ezargarriaren zati bakoitza tarte bakoitzerako tasan zergapetuko da, hurrenez hurren.</p>	Oinarri ezargarriaren zatia (tarte honetan dagoena)	Tasa	Portzentajea		0-2.000.000,00 euro	20	2.000.000,00 eurotik gora	33
Oinarri ezargarriaren zatia	Portzentajea														
0-2.000.000,00 euro	20														
2.000.000,00 eurotik gora	35														
Oinarri ezargarriaren zatia (tarte honetan dagoena)	Tasa														
Portzentajea															
0-2.000.000,00 euro	20														
2.000.000,00 eurotik gora	33														
Karga tasa %35etik %33ra murrizten da, 2 milioi euro gainditzen duen oinarri ezargarriaren zatirako.															



3. FORU ARAU PROIEKTUAREN GENEROARI BURUZKO TXOSTENA

3.1. Txostenaren oinarriak eta helburua

Euskal Autonomia Erkidegoko 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoaren, 6.artikuluaren xedatutakoaren arabera, foru administrazioei dagokie foru legeria nolakoa den eta nola aplikatzen den begiratzea, emakumeen eta gizonen berdintasun printzipioaren arabera, eta 2005eko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauaren, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoaren, 70. artikuluan ezarritakoaren arabera, izaera orokorreko xedapenen aurreproiektuak egiteko prozeduran, bertan ezarritako neurrien genero inpaktuari buruzko txosten bat bildu beharko da eranskin gisa.

3.2. Generoaren ikuspegitik kontuan hartzeko den identifikatzea

Dagokigun Foru Arau egitasmoak zerga desberdinetan aldaketak ekarriko ditu. Zentzu honetan, aldaketa hauen gehiengoak genero inpakturik izango ez badu ere, bi neurri identifikatu ahal izan dira pertsonengan, emakume nahiz gizonengan, eragin zuzena dutenak. Ondoren zehazten dira:

- Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren 10/2006 Foru Araua, abenduaren 29koa.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan pentsiodunei eta langabezia-prestazioen onuradun direnei kenkari berri bat ezarriko zaie, jasotako pentsio edo prestazioaren %1ekoa, hain zuzen ere. Kenkari hau 2011 ekitaldian soilik egongo litzateke indarrean eta bere helburua Gizarte Segurantzako pentsioetan ekitaldi horretan emandako izoztearengatik galdutakoa neurri batean kenkari bidez berreskuratzea litzateke.

Aldaketa honek gizon eta emakumeei zuzenean eragiten dienez, genero berdintasunaren printzipioa integratzeko KONTUAN HARTU BEHARREKOA da.

- Ondare eskualdeketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren 18/1987 Foru Araua, abenduaren 30koa.

Ohiko etxebizitza erosterakoan emandako ondare eskualdaketagatik zerga tasa murriztua aplikatzen da, baldintza batzuk direla medio. Baldintza horietako bat da eskuratzaila ez izatea udalerrri berean beste etxebizitza baten jabea %25etik gorako portzentajea. Baldintza hori ezereztatu egingo da 2011eko urtarrilaren 1etik aurrera zerga neurri berri hauen bidez, tasa murriztua subjektu pasiboko behin bakarrik aplikatu ahal izango delarik.

Aldaketa honek gizon eta emakumeei zuzenean eragiten dienez, genero berdintasunaren printzipioa integratzeko KONTUAN HARTU BEHARREKOA da.



3.3. Genero inaktuaren balorazioa

3.3.1. PFEZen aldaketak. Pentsiodunei eta langabezia-prestazioen onuradunei kenkari berria

Lehenik eta behin, pentsiodunen eta langabezia-prestazioen onuradunen kolektiboan foru arauak eduki dezakeen eragina aztertu dugu.

Zentzu honetan, Gipuzkoako Ogasunak lan atxikipenei buruz dituen datuak erabili dira, hau da, 190 ereduan aurkitutakoak, bai eta 2008ko PFEZ aitorpenetan (2009ko aitorpenen behin-betiko daturik ez dugu) jasotako datuak.

Garrantzitsua da aipatzea, 190 ereduan sexu desberdinketa egin ahal izateko daturik ez dela jasotzen, hau da, pentsiodunen nahiz langabezia-prestazioa jasotzen duten kolektiboaren sexuaren arabera banaketarik ezin dugu egin egungo datuekin (190 ereduan sexuaren identifikaziorako datua jasotzea aztergai da momentu honetan). Hau dela eta, ikuspegi orokorra, hots, kolektibo honen barnean jasotako errenten banaketa zein den, galdu egiten da.

PFEZ aitorpenetan, aldiz, sexuaren datua jasotzen da 2008az geroztik, honen arabera azterketa ahalbidetzen duelarik. Dena den, kolektibo osoaren zati haundi bat aztertzeko geldituko da hau dela-eta.

Honela, pentsiodunak orotara 124.159 badira (190 ereduaren arabera), 2008an PFEZ aitortu dutenak 82.682 izan dira. Langabezia-prestazioen jasotzaileak, berriz, 70.321 dira eta aitortzen dutenak, 33.901 besterik ez.

Has gaitezen, lehenik eta behin, pentsiodunen taldean neurriaren eragina aztertzen.

PENTSIODUNAK

Pentsiodunak guztira (190 eredu, sexu desberdinketarik ez dago)

Urteko pentsioen tarteak	Pentsiodunak	%tan
0tik 4.999ra	8.552	7
5.000tik 9.999ra	45.422	37
1.0000tik 14.999ra	26.133	21
15.000tik 19.999ra	19.382	16
20.000tik 24.999ra	12.844	10
25.000tik 29.999ra	6.800	5
30.000tik gora	5.026	4
GUZTIRA	124.159	100



PFEZ aitortu duten pentsiodunen banaketa, sexu eta pentsio tartearen arabera

Urteko pentsio tartea	Emakumeak	Emak. %	% Metatua	Gizonak	Gizonak %	% Metatua
0tik 4.999ra	2.600	8	8	1.876	4	4
5.000tik 9.999ra	15.204	44	52	6.913	14	18
10.000tik 14.999ra	8.167	24	75	8.893	18	37
15.000tik 19.999ra	4.889	14	90	10.438	22	58
20.000tik 24.999ra	1.977	6	95	10.205	21	79
25.000tik 29.999ra	925	3	98	5.697	12	91
30.000tik gora	683	2	100	4.215	9	100
GUZTIRA (82.682)	34.445 (%42)	100		48.237 (%58)	100	

Aurreko tauletan ikusten denaren arabera, PFEZ aitortzen duten pentsiodunen artean emakume eta gizonezkoen artean jasotako pentsioaren zenbatekoan diferentzia nabarmena da. Emakumeen %75ak 15.000 eurotik beherako pentsioa jasotzen duen bitartean, gizonen artean %37 besterik ez da pentsio horien jabe. Aitorle kopurua aztertuz, bestalde, 82.682 pentsiodunetatik %42 emakumeak dira eta gainontzeko %58a gizonak.

2008ko ekitaldiko pentsiodunen PFEZ aitortzen duten likidazioan kenkari berriaren kalkulua gehituz gero, ondokoa ikusi dezakegu:

Kenkari berria aplikatzeko orduan, oinarri ezargarri osoa 20.000 euro baino handiagoa ez izatearen muga ezarri da. Hau dela eta, PFEZ aitortzen duten pentsiodunetatik (82.682) kenkari berria 18.755 pertsoneri soilik aplikatuko litzaioke, bai muga gainditzen dutelako, bai kenkaria aplikatzeko kuota likidorik ez dutelako.

PENTSIODUNAK

Emakumeak

Urteko pentsio tartea	Emakumeak	Kenkari aplikagarria
0tik 4.999ra	578	20.397
5.000tik 9.999ra	2.155	154.250
10.000tik 14.999ra	3.145	377.799
15.000tik gora	2.711	468.539
GUZTIRA	8.589 (%46)	1.020.986 (%40)

Emakumeen batez besteko kenkaria: 119euro



Gizonak

Urteko pentsio tartea	Gizonak	Kenkari aplikagarria
0tik 4.999ra	290	9.664
5.000tik 9.999ra	1.236	93.706
10.000tik 14.999ra	2.650	325.679
15.000tik gora	5.990	1.085.621
GUZTIRA	10.166 (%54)	1.514.670 (%60)

Gizonen batez besteko kenkaria: **149** euro

Aitortzen dutenen artean %42a emakumeak izanik, kenkaria aplikatuko luketenen artean %46a dira. Zentzu honetan, neurriak **inpaktu positiboa** edukiko luke, portzentaje handiagoan eragingo bailioke emakumeei, 20.000 eurotik gorako oinarri ezargarriaren muga ezartzerakoan, gizonen proportzio gehiago gelditzen baita kenkaria aplikatu ezinik (batez beste pentsio altuagoak baitituzte).

Aplikatuko luketen kenkariaren zenbatekoari begiratu, ordea, ikus dezakegu emakumeek kenkariaren onuradunen %46a izanda kenkariaren guztizkoaren %40a besterik ez luketela jasoko. Ondorioz, batzuk eta besteek jasoko luketen batez besteko kenkaria ere desberdina da (119 eurokoa emakumeek, 149koa gizonak). Hala eta guztiz ere, lehen aipatu bezala, neurriaren helburua ez da progresibitatea bilatzea, baizik eta era proportzionalan pentsioen izozteagatik galdutakoa berreskuratzea. Alde honetatik, beraz, neurriaren **genero-inpaktua neutroa** litzateke.

Ondoren, langabezia-prestazioa jasotzen dutenen taldean aldaketak edukiko duen eragina aztertuko dugu.

LANGABEZIA-PRESTAZIOEN ONURADUNAK

Langabezia-prestazioen onuradunak guztira (190 eredia, sexu desberdinketarik ez dago)

Urteko prestazioaren tartea	Langabezia-prestazioen onuradunak	%tan
0tik 4.999ra	47.747	68
5.000tik 9.999ra	17.063	24
10.000tik 14.999ra	5.287	8
15.000tik 19.999ra	217	0
20.000tik 24.999ra	7	0
GUZTIRA	70.321	100



PFEZ aitortu duten langabetuen banaketa, sexu eta pentsio tartearen arabera

Urteko prestazioaren tartea	Emakumeak	Emak. %	% Metatua	Gizonak	Gizonak %	% Metatua
0tik 4.999ra	11.266	67	67	9.900	58	58
5.000tik 9.999ra	4.726	28	95	5.144	30	88
10.000tik 14.999ra	880	5	100	1.913	11	100
15.000tik gora	26	0	100	46	0	100
GUZTIRA (33.901)	16.898 (%50)	100		17.003 (%50)	100	

Aurreko bi tauletan ikusten denaren arabera, urteko prestazioen zenbatekoa kolektibo osoan pentsiodunena baino nabarmen txikiagoa dela ikus dezakegu (%92ak 10.000 eurotik behera jasotzen du). Bestalde, langabezia-prestazioa jasotzen duten 70.321 pertsonetatik 33.901ek besterik ez dute PFEZ aitortpena aurkezten, hauen artean emakume eta gizonen kopurua ia berbera izanik. Hala ere, prestazioen zenbatekoan diferentzia ageri da: emakumeen %67ak 5.000 eurotik behera jasotzen du, gizonezkoen %58aren aldean.

2008ko PFEZ aitortpenen likidazioan kenkari berriaren kalkulua sartuz gero, ondokoa ikusi dezakegu:

Kenkaria aplikatzeko ezarritako mugak direla-eta, pentsiodunen kasuan bezala, langabezia-prestazioen onuradunen kasuan PFEZ aitortpena aurkezten dutenetatik (33.901) kenkaria 17.986 pertsonen aplikatu ahal izango dute.

LANGABEZIA-PRESTAZIOAREN ONURADUNAK

Emakumeak

Urteko pentsio tartea	Emakumeak	Kenkari aplikagarria
0tik 4.999ra	4.689	104.505
5.000tik 9.999ra	1.930	132.797
10.000tik 14.999ra	622	70.198
15.000tik gora	16	2.481
GUZTIRA	7.257 (%40)	309.981 (%36)

Emakumeen batez besteko kenkaria: **43 euro**



Gizonak

Urteko pentsio tartea	Gizonak	Kenkari aplikagarria
0tik 4.999ra	6.013	143.415
5.000tik 9.999ra	3.283	232.661
10.000tik 14.999ra	1.407	162.518
15.000tik gora	26	3.952
GUZTIRA	10.729 (%60)	542.547 (%64)

Gizonen batez besteko kenkaria: 51 euro

Ikus daitekenez, kenkaria aplikatu dezaketen guztietatik %40 emakumeak eta %60 gizonak dira. Kolektibo honetan, beraz, neurriaren **genero-inpaktua negatiboa** da nolabait, aitortzaileen artean emakumeen kopurua %50ekoa izanik, kenkaria %40ak besterik ez baitu aplikatuko.

3.3.2. Ondare eskualdeketak eta EJDak. Ohiko etxebizitza erosteagatik murriztutako tipoa aplikatzeko baldintzen aldaketa

Zerga honetan emango diren aldaketen genero inpaktua neurtzeko, 2009eko urtarrilaren 1.etik emandako etxebizitzaren salerosketa guztien datuak kontuan eduki ditugu. PFEZ-aren kasuan 190 ereduarekin gertatzen den bezala, 60T ereduak (ondare eskualdeketak jasotzen dituenak) ere ez du sexuaren daturik jasotzen. Hori dela-eta, 60T guztiei 2008 ekitaldiko PFEZ datuekin alderatu eta sexuaren datua gehitu diogu. Era honetan, 7.103 salerosketetatik 6.424 subjektu pasiboren sexua jakin ahal izan dugu, azken hauek aztertu ahal izan ditugularik.

Lortutako datuen sexukako banaketa eginez gero, ondoko taulako emaitzak agertzen dira:

Tasa mota	Emakumeak	Emakumeen %	Gizonak	Gizonen %	GUZTIRA
<u>Orokorra</u>	1.693	49,5	1.724	50,5	3.417
<u>Murriztua</u>	1.494	49,7	1.513	50,3	3.007
GUZTIRA	3.187		3.237		6.424

Taulan bildutako emaitzen arabera hauxe ondorioztatu daiteke: Etxebizitza salerosketen kopurua, bai tasa orokorra bai tasa murriztua aplikatzen den kasuetan, erabat orekatua dagoela bi sexuen artean. Ondorioz, ondare eskualdeketa hauetan eman nahi den neurri berrien ezartzeak **genero-inpakturik** edukiko ez duela baieztatu dezakegu.



4. FORU ARAU PROIEKTUAK SARTUTAKO ALDAKETEN ERAGINA ZERGABILKETAN

4.1. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga

Kalkuluen arabera, kenkari berria ezartzeak zergabilketan eragin negatiboa izango du (3.388.094 euro), eta gutxi gorabehera 36.741 zergaduni ekarriko die onura.

- Pentsiodunentzako kenkaria: 2.535.656 euro / 18.755 zergadun
- Langabetuentzako kenkaria: 852.438 euro / 17.986 zergadun.

4.2. Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga

Kalkuluen arabera, etxebizitzak eskualdatzean tasa murriztua aplikatzek baldintzak aldatzeak 26.000 euroko efektu positiboa izango du zergabilketan.

4.3. Jokoaren gaineko zerga

4.3.1 Bingoaren karga tasa

Tasa murrizteak 512.000 euro gutxiago biltzea ekarriko du.

4.3.2. Kasino jokoaren karga tasa

Tasa murrizteak 12.000 euro gutxiago biltzea ekarriko du.



NEURRIEN LABURPENA	EUROAK
Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga	-3.388.094
Pentsiodunentzako kenkaria	-2.535.656
Langabetuentzako kenkaria	-852.438
Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga	26.000
Etxebizitzetako tasa murriztua	26.000
Jokoaren gaineko zerga	-524.000
Bingo jokoaren tasa	-512.000
Kasino jokoaren tasa	-12.000
Guztira	-3.886.094

Donostia, 2010eko urriaren 28a

AZTERLANEN ATALEKO BURUA

O.I.

ERAKUNDEEKIKO KONPROMISOEN ZERBITZUBURUA